

TELAREA / EHUNGAILU LIHOA

Uztaila bukaera hartan bero egiten zuen Igartubeiti inguruan. Aspaldian halako berorik egin gabea zen. Lihoa biltzen ari zen Kattalin, lagunak laguntzera noiz etorriko. Bekokian behera izerdi tanta bat eta bi izerdi tanta. Arnasa sakon hartu eta landare bakoitzari zuztarretik tira eginda ari zen Kattalin hamarreko sorta egiten eta freskurabila une batez begiak itxi eta landareari maiatzean loratzen zaion lau petalo urdinekolore ederrean pausatu zuen gogoia. Kolore urdin hura. Izan zitekeen iturria parrastan. Ur freskoa. Eskura balu ahoratu egingo zukeen Kattalinekin lihoaren lore urdina. Edo kolkoan sartu bestela.

Lan nekeza zen hura. Lihoa erein, bildu, zintzilikatu, erreka uretan bigundu, hari bihurtu eta orduak eta orduak, gaueko ordu txikietan sarri, telarean igaro. Lan nekeza zen hura, baina baita gozoa ere. Telarean pasa beharreko une haiek batez ere. Kontu- kontari biltzen ziren hiru-lau lagun xuxurlapeko kantu eta guzti. Ipuinak kontatzen zirela elkarri eta irri arteko sekretutxoak ere bai. Kandelen argipean itsu-itsuan aritzen ziren haria gora eta haria behera, orain ni eta gero zu.

Sorginkeria esaten zuten inguruko askok. Sorginkerian aritzen zirela. Gauaren ilunean, ordu horietan, lau-bost andra. “Ezer onik ez” esaten zuten. Baina haietako inor ez zen hurbiltzen lanera. Esaten zien Kattalinekin “Etorri, etorri, eskuak behar ditugu!”, baina ahoa bero eta eskua hotz izaten zuten nonbait.

Gau batean gertatu zen ederra! Ttaka-ttaka lanean eri zirela, ttorttor-ttorttor hizketan ari zirela, barre-algara ttiki batek egin zion ihes Kattalini. Ttikia izan arren, barre-algarabeti da barre-algara. Han azaldu zen oinutsik Martintxo. Martintxo txikia. Begiak igurtzieta igurtzi, loa arrastaka zekarrela, “Ama eta ama” ea zer gertatzen zen galdezka. Loak ihes egin zionean, gustura gelditu zen kontu eta kantu-xuxurla gaueko ordu txikietan amaren eta amaren lagun ondoan. Martintxo txikia, telarean.